

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 26a / 578. zenbakia



## **GORLAKO IGOERA DOMEKAN**

Irteeran 120 txirrindulari izango dira

TURISMO BULEGOA: EGUENEAN IREKIKO DUTE/5 • KULTURA: TXOTXONGILOEN MOSTRA MAIATZEAN/14





# IRAGANA GOGORATUZ

## Medikuntza Debagoiengan

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikusiko  
duzu!**

IRAGANA GOGORATUZ  
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

**Goiena** **FAGOR**

Martitzenean, martxoaren 30ean,  
20:30ean



## ATREBENTZIAEZPADA/ Udaberria dela-eta gehiago zaintzeko ohiturarik baduzu?



**CONCHI FLORES**  
33 urte

Ez, ez dut ezer berezirik egiten gorputza zaintzeko. Urte osoan zaintzen dut jatekoa, baina ez udarako ederrago egoteko, nire buruarekin gusturago egoteko baizik.



**GAIZKA OSA**  
23 urte

Mendira gehiago joaten naiz, baina ez argaltze alde- ra eguraldiak laguntzen duelako baizik. Janaria, berriz, urte osoan berd in jaten dut, janari garbia, bai- na bereziki zaindu gabe.



**AINARA ETXEBERRIA**  
25 urte

Bai, hasi naiz goizetan men- dira joaten ordubetez. Bes- talde, jatekoa ere zaintzen dut; gozokiak jateari utzi diot eta ogia ere gutxiago jaten dut. Udari begira gor- putza zaintzea komeni da.



**JOSE JAVIER AGIRRE**  
38 urte

Eguraldi hobearekin beti animatzen da kirol gehia- go egitera: igeri egin, bizi- kletan ibili... Horrela, itxu- ra pixka bat zaintzen da. Hala ere, lehen kirol gehia- go egiten nuen.



**MARIBEL SERRATO**  
44 urte

Ez, ez daukat ohiturarik gimnasia joateko edo die- tarik egiteko. Ez nau itxu- rak hainbeste kezkatzen. Hala ere, hondartzara joan- dakoan inoiz pentsatu dut: "Zaindu izan banintz..."



**CARLOS CESPADOSA**  
41 urte

Ez, urte osoan bizitza erri- mo bera jarraitzen dut. Ber- din dit udaberria izan zéin negua izan. Ez dut gorpu- tza zaintzeko ezer berezirik egiten, ez dietarik, ezta kirol- ik ere.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK SEMINARIOKO SARRERA** Erramu-zapatuko feria hel- tzear da, eta Telefonikako aldetik Seminarioko patiora joateko sarre- ran, beste urte batzuetan gertatu den moduan, aurten ere hainbat arazo izango direla esan digu irakurle batek. Zerbait postu ipintzen dituzte jolastokian, eta bertatik sartu eta irten behar dutenendako sarrera estuegia da. Zabaldu egin behar luketela gaineratu digu. /I.A.

### ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

#### Jaurlaritzaren dirulaguntza

Bost proiekturen finantzaketan laguntzeko, bi milioi euroko dirulaguntza eskatu du Udalak.

KIROLA /11

#### Debarroko txapelketa

Bergara KEko pilotariak Deba- rroko Txapelketa- ri ekin zioten martitzenean, Udal Pilotalekuan.

KULTURA /14

#### Antzerkia gaur Zabalotegin

*El feeling es asi* antzezlan- a egubakoitzean Zabalotegin, Tearto taldearen eskutik.

### ASTEKO DATUA

# 120

#### TXIRRINDULARI GORLAKO IGOERAN

Domekan jokatu da Gorlako Txirrindulari Igoeraren 30. edizioa. San Martin plazatik abiatuko dira 10:00etan txirrindulariak. Antolatzaileek esan digutenez, 120 lagun espero dituzte.

### BESTEKE SANA

“

Joan zen egunean Bergarara eraman ninduten bazkaltze- ra, Lasa jatetxera. Donostiar zentralis- tok askotan hor dagoela ahazten badugu ere, merezi du bertara buelta-

txo bat egiteak. Tradizio handiko txokoa da, orain dela urte batzuk jauregi batera aldatu zena eta egun Euskal Herriko epizentroaren sustraiek eta chateau frantsesa- ren aromek bertan bat eginez izaera berezia ematen diotena. Jabea, Koldo Lasa, euskal sukaldar- itza berriko bidaia laguna eta pertsonaia bitxia, ohiko sukaldari txanoaren orde txapela zuria erabiltzen du, barojari eta frantsesaren artekoa”

**MITXEL EZKIAGA /**  
Kazetaria  
‘El Diario Vasco’/04-03-20

### BERAIEK DIÑO/E/ Iñigo Iñurrategi



#### Udaberria

Iritsi da udaberria Saint Jérôme-n, Chibougamau iparraldeko herri kokko- rrean, Quebecen. Herria Asbesto meategiaren inguruan sortu zen: XX. mende hasiera- ko krisi garaiei ihesi Montrea- leko langile familiak joan ziren bertara, Guy Tremblay- ren gurasoak tartean, eta 80. hamarkadan Poloniatik etorkin talde berri batek osatu zituen herria eta meategiaren eskulan beharrak.

Guy hilerriko arduraduna da eta neguak luze egiten zaizkio, apenas egiten baitu lanik: neguan hilerrian ez da inor lurpera- tzen. Izan ere, metro beteko elurraren azpian lurra izoztua dago, gogor eta gordin.

Inor ez da lurperatzen neguan, eta hilotzak hilerriko biltegi zaharrea gordetzen dira, hozteko makinaren behar- rik gabe. Apaiz jaunak defun- tuaren azken agurreko elizkizu- nak ospatu eta bedeinkapenak partitu bitartean Guy hantxe izaten da biltegiko atarian,

zain, herritarrek hilkutxa berria lepoan hartuta noiz iritsiko. Bertan utziko dute zerraldoa, udaberriaren zain, bi kaballeteren gainean eta asbesto zakuen oihal grisaz estalirik.

Iritsi da udaberria Saint Jérôme-n, eta Guy prest dago aurtengo neguan pilatu dituen hilkutxak lurpera- tzeke. Neguak bere zuritasuna galdu du, lur izoztua eguzkia ikusita biguntzen hasi da eta berriz ere usaina dario.

Ez ditu maite udaberriko lurpera- tzeak Guy-k: senide- entzako bigarren lutua izaten da, eta beretzako lan pilatua. Baina bestalde, badaki sasoi hobeen ataria dela eta horrega- tik izaten da zain udaberria noiz iritsiko.

Gurera ere iritsiko da udaberria, garai hotz eta gordinen amaieran. Pilatutako lana izango dugu aurretik, lur gordinetan beharko dugu goldatu. Baina sasoi hobeen atarian izateak itxaropentsu jartzen nau.

“Neguak bere zuritasuna galdu du, lur izoztua eguzkia ikusita biguntzen hasi da eta berriz ere usaina dario”

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91

ISSN  
1130-6599

TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 26**  
ESTELLA. Matxiategi 5 ..... 943 76-19 63
- ZAPATUA, 27**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- DOMEKA, 28**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 29**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- MARTITZENA, 30**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 31**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- EGUENA, 1**  
ESTELLA. Matxiategi 5 ..... 943 76 19 63

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) ..... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46  
Ertzaintza ..... 943 53.47 20  
Osasun etxea ..... 943 76 24 40  
Asepeyo ..... 943 76 16 43  
Pakea ..... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23  
Odol emaleak ..... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 76 19 50
- UDALA**  
Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32  
Igerilekuak ..... 943 76 20 51  
Kultura etxea ..... 943 77 91 58  
Liburutegia ..... 943 77 91 62  
Kiroldegia ..... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**  
Epaitegia ..... 943 76 14 92  
Erregistroa ..... 943 76 13 15  
Jardun ..... 943 76 36 61  
Idolaz ..... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara ..... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea ..... 943 76 26 85  
Bedelkar ..... 943 76 04 68  
Akulu AEK ..... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |  |
|--|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak: 09:30, 12:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:00.                 | <b>Labegarieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorentzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:30.<br><b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 11:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30. |
| <b>Santa Marina</b><br>Domekak: 11:00, 13:00.<br>Zapatuak: 19:00.                            | <b>Antzuola</b><br>Domekak: 09:00, 11:30.<br>Zapatuak eta lanegunak: 19:30.  |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:30.<br>Zapatuak: 19:00.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 10:30.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.   |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  | <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |  |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |  |
| <b>URTE-MEZAK</b><br><b>Santa Marina</b><br>Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan. |  |
| <b>San Pedro</b><br>Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.                        |  |

**OHARRAK**

**1974AN JAIOTAKOEN BAZKARIA MARTXOAREN 27AN**

1974an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute martxoaren 27an Zabala jatetxean. Aurretik Pol-Pol tabernan elkartuko dira, 12:30ean. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1500 9007 0752).

**1954AN JAIOTAKOEN IRTEERA ERRIOXARA APIRILAREN 3AN**

1954an jaiotako bergararrek Errioxara irteera egingo dute apirilaren 3an. Irteera 08:30ean izango da Frontotik. Izena emateko epea martxoaren 26ra arte zabalik Euskadiko Kutxan (3035 0009 1400 9110 8913).

**ODOL ATERATZEA MARTXOAREN 31N**

Bergarako Odol Emailek aditzera eman dute hurrengo odol ateratzea martxoaren 31n izango dela, Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

**JARDUNEN AGENDA**

**KANTU AFARIA APIRILAREN 2AN TXARRANTXA JATETXEAN**

Jardunek kantu afaria antolatu du apirilaren 2rako. Txarrantxa jatetxean izango da. Kantu afarirako txartelak Kortazar tabernan edo Jarduneko bulegoan (Errotalde jauregian) eskuratzeko aukera duzue. Jarduneko bazkideek 18 euro eta gainerakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte. Izena emateko epea, martxoaren 29ra arte zabalik.

**TXAPLIGU ETA TXISKRILABI**

Txapligu taldekoak Arrizuriagan elkartuko dira bihar, zapatua, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoek, berriz, jarduerak izango dituzte Udal Euskaltegian, ordu berean. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**


**Seminarioko eliza itxita, teilatuaren egoeragatik**

Errege Mintegiko elizako teilatuaren egoera larria zela eta, Udal Gobernu batzordeak eliza edozein jardueratarako ixtea erabaki zuen orain dela hamar urte. Hirigintza batzordeak elizako kupula eta erretilaren inspektzio ikustaldia egiteko agindu zion Eusko Jaurlaritzari.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Surzillo"**



Sudurzillo.  
— Surduzuloak pe esaten dok, surzuloak.

GORKA ORTEGA

**ASTEKO PELIKULAK**


**'LOST IN TRANSLATION'**

ZUZENDARIA: SOFIA COPPOLA. AKTOREAK: BILL MURRAY, SCARLETT JOHANSSON.

**HARIA.** Bob Harris zinemako izarra Tokiora iritsi eta bera moduan krisian dagoen emakume gazte bat ezagutuko du...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAUZIOA: ●●●●●



**'CASA DE ARENA Y NIEBLA'**

ZUZENDARIA: VADIM PERELMAN. AKTOREAK: JENNIFER CONNELLY, BEN KINGSLEY, RON ELWARD.

**HARIA.** Bi pertsonak neurri gogorak hartu beharko dituzte etxe baten jabe egiteko. Kalifornia iparrekko bungalow bat baino ez da, baina Kathyrentzat bere azkeneko itxaropena da drogen me-  
pe ibili eta gero.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Egunean, apirilaren 1ean, 20:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



**HIRIGINTZA** / Bost proiektuak 2004-2008 urte bitartean egingo dira, 9,5 milioi euro inguruko aurrekontuarekin

# Bost proiektutarako bi milioi euro jaso nahi ditu Udalak Izartu programari esker

EDU MENDIBIL

**Bergarako Udalak bi milioi euroko dirulaguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, 2004-2008 epe bitartean herrian egingo diren bost proiekturen finantzaketan laguntzeko. Aipatutako bost proiekturen aurrekontua 9,5 milioi euro da.**

Gainbehera etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta lurraldetasunari begira berpizteko egitaraua laguntzeko jarri du abian Eusko Jaurlaritzak Izartu programa.

Bergarako Udalaren kasuan, Gobernu batzordeak bost proiektuendako dirulaguntza eskatzea onartu du. Hain zuzen ere, Agorrosingo kirolgune berrirako, Zubiaurre eta Martoko kaleen urbanizaziorako, Artekalea, Arruriaga eta Domingo Irala kaleen berrurbanizaziorako, Arostegi jauregiko lokalaren egokitzapenerako eta, azkenik, Santa Ana ermitaren inguruko urbanizaziorako eskatu du dirulaguntza Bergarako Udalak. Datozen egunotan Jaurlaritzaren erantzuna jasotzea espero dute udal agintariek. Izartu programarako lehen tasunezko proiektuak aukeratu dituzte.

## **%30EKO DIRULAGUNTZA**

Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, proiektu horien kostuaren %30 Jaurlaritzako dirulaguntzarekin finantzatzea da helburua. Goian aipatutako proiektuek, guztira, 9,5 milioi inguruko aurrekontua daukate. Horietatik 3,6 milioi euro Agorrosingo kirolgune berrirako bideratuko ditu Udalak. Gallastegi alkateak zera esan digu: "Kirolgune berria egitea baino, ins-



Besteak beste, Artekalea eta Arruriaga kaleen berrurbanizaziorako dirulaguntza eskatuko dio udalak Jaurlaritzari.

ARTXIBOA

## *Bost proiekturen kostuaren %30 jaso nahi du Udalak Jaurlaritzako Izartu programari esker*

talazioen berritzea dela esatea zuzenagoa da. Aurtengo udal aurrekontuetan 1.953.00 euro inguru bideratuko ditugu Agorrosingo proiekturako. Apirilean aterako ditugu

baldintza pleguak lehen lanak adjudikatu ahal izateko, eta arazuko epeak bete bezain laster lanekin hasateko asmoa daukagu".

Izartu programaren laguntzarekin Udalak egin nahi dituen proiektuak 2004-2008 urte bitartean burutuko dira. Dena den, aurtengo aurrekontuetan, udal gobernuak Artekalea, Arruriaga eta Domingo Irala kaleen berrurbanizaziorako, Arostegi jauregian erakusketa aretoa egokitzeko eta kirolgune lanekin hasteko diru partidak onartuko ditu aurtun.

## *Izartu programarako lehen tasunezko proiektuak aukeratu ditu Udalak*

### **AROSTEGIKO ATEAREN BERRITZEA**

Arostegi jauregian erakusketa aretoa udaberrirako zabaltzea asmoa bazen ere, ez dira hasieran pentsatutako epeak beteko.

Jauregia egokitzeko lanak has-teke daude oraindik. Arostegi jauregiko atea berritzeak 28.700 euro inguruko aurrekontua dauka. Horren kontura zera adierazi digu Xabier Aranburu udal museologoak: "Bost milioi peze-ta horretan inbertitzea ez da gehiegizkoa. Azken baten, arte lana da Arostegikoa, XVI. mendeko ate errenazentista. Euskal Herrian ez dago horrelako besterik eta Espainiako estatuan ere gutxi egongo dira. Ohol gainean eging-dako arte lana da, balore handi-ko tailak dauzka-eta".

# Turismo Bulegoa apirilaren 1etik irailera bitartean zabalik

E.M.

**Udalaren Turismo Bulegoa zabalduko dute datorren egunean, apirilaren 1ean. Bergara ezagutzera datozenei zuzenduta, udaletxeko sarreran dagoen bulegoa irailaren 30era arte egongo da zabalik.**

Bergararen Zabalkunde Turistikorako Plangintza 1994an jarri zuten abian, herriko ondarea ezagutzera emateko asmoarekin. Turismo Bulegoa, berriz, hurrengo urtean, 1995ean, zabaldu zuten aurreneko aldiz. Xabier Aran-

buru udal museologoaren arabera, urte hauetako balantzea positiboa da: "Orain dela 10 urte ez zen turistarik etortzen Bergarara, eta gaur egun, berriz, 3.500 bisitari inguru etortzen dira urtero. Bergarak ondare aberatsa dauka eta gauza positiboa da kanpoko jendeak gure altxorak ezagutzera". Aranburuk esan digunez, maiatza, abuztua eta iraila dira turista gehien jasotzen dituzten hilabeteak.

### **IRAILAREN 30ERA ARTE ZABALIK**

Esan bezala, Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da

zabalik. Aurreko urteotan bezala, Bergarako Udalak Bilboko Nis enpresari adjudikatu dio zerbitzua. Nis enpresako Isabel Lopez, Josune Galartza eta Maialen Elortza izango dira Turismo Bulegoan lanean, txandaka. Aste barruan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era zabalduko dute eta domeka eta jaiegunetan 11:30etik 14:30era. Hala ere, Aranburu museologoak aurreratu digunez, ez dute domeka guztietan zabalduko.

Turismo Bulegoak herriko ondarea erakusteko bisita gidatuak antolatuko ditu.



Turismo Bulegoa etortzen direnendako bisita gidatuak antolatuko ditu.

ARTXIBOA



HEZIKETA/ Bilboko Erakustazokan Debagoieneko ordezkari bakarra izango da

# Miguel Altuna institutua, Lanbide Heziketako ferian

EDU MENDIBIL


Miguel Altuna institutuak Lanbide Heziketaren gaineko azokan parte hartuko du. Ikastetxean sortu eta egindako lau produktu erakutsiko ditu Miguel Altunak Bilboko Erakustazokan. Feria gaur zabaldu dute eta astebetzez egongo da zabalik.

Lanbide Heziketaren gaineko II. azokan, Euskal Autonomia Erki-degoko ikastetxeetan eskaintzen diren 21 familia izango dira ordezkariak. Miguel Altuna ikastetxearen kasuan, bi familia profesional erakutsiko dituzte ferian, fabrikazioa mekanikoa batetik eta kautxuak eta plastikoak bestetik.

## LAU PRODUKTU

Fabrikazio mekanikoaren barruan, produktuak diseinatu, egin, probatu eta zuzendu egiten dira; eta plastiko eta kautxuen familian, injekzio metodoa jarraituz, aurrekoek diseinatutako produktuak fabrikatzen dira. Abiadura handiko makina erabiltzen dute Miguel Altunan, eta han egindako lau produktu erakutsiko dituzte Bilboko Erakustazokan: *catering*-eko koilaratxo bat, plastikozko giltzatak, boligrafoaren muturra (aluminiozkoa) eta merkatari-guneetan erositak egiteko karroetan erabiltzen diren txanponak.

EAEko Lanbide Heziketan



Bego Gomez Miguel Altunako irakaslea abiadura handiko makinarekin.

eskaintzen diren familietako bakoitzak stand bat izango du Bilbon. Miguel Altuna izango da Debagoieneko ordezkari bakarra. Feria gaur zabaldu dute eta astebetzez egongo da zabalik, San Mames futbol zelaiaren ondoan, hain zuzen.

Jabi Arteaga Miguel Altunako ordezkariak zera esan digu: "Lanerako dauden aukerak eta erabiltzen dugun makineria modernoa ikusteko aukera izango da. Bestalde, industria sektorean emakumearen presentzia indartzea da helburuetako bat".



## Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia BEKEren eskutik

Bergarako Emakume Kultur Elkarteak antolatuta, Jose Ramon Serrano eta Txema Bruña ginekologoek bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia egin zuten martitzen arratsaldean, Miguel Altuna institutuan. 30 lagun inguru elkartu ziren, eta hizlariak emakume askori eragiten dieten gaitzen inguruko azalpenak eman zizkieten.

## Elizamendiko Andra Mari jaia ospatuko dute Angiozarren

Elizamendiko Andra Mari jaia ospatzeko bertso afaria antolatu dute Angiozarren gaurko (egubakoitza). Mikel Mendizabal eta Xabier Zeberio bertsolariak izango dira Pagomendi elkartearen, trikitilarien laguntzaz. Izenematea Angiozarko tabernetan egin daiteke.

### ELIZAMENDI, EGOERA TXARREAN

Bestalde, domekan, meza izango da Angiozarko San Migel parrokiaren, 11:00etan. Mainddao auzoko (Angiozartik Elgetarako bidean) Elizamendiko ermita oso egoera txarrean dago, eta hori dela eta meza San Migel parrokiaren egingo dute. Ohiturari jarraituz, umeen bedeinkazioa egingo dute elizkizunean. Elizamendiko Ama Birjinaren irudian, magalean duen haurrari titia ematen azal-

tzen da Ama Birjina, eta Angiozarren ez ezik, inguruko herrietan ere debozio handia izan diote Elizamendiko Ama Birjinari. Haurdun diren emakumeek berarengana jo izan dute babes eske. Gaur egun Elizamendiko Ama Birjinaren irudi originala Angiozarko San Migel parrokiaren dago gordeta, eta Mainddao auzoan dagoena kopia bat da.

Esan bezala, Mainddao ermita oso egoera txarrean dago. Mila Elortza Angiozarko auzo alkateak esan digunez, Aste Santuan hobetze lan batzuk egiteko asmoa dute, auzolanean: "Kupuladun eliza izanda, lanak ez dira errazak. Dena den, elizpea jasotzea eta itoginak ahal den neurrian konpontzea nahi dugu". Eliza konpontzeko dirulaguntzen zain dira azken urteotan.



Elizamendiko Ama Birjina Angiozarko San Migel parrokiaren dago gaur egun.

## LABUR

### Euskararen presentzia aldarrikatzeko EHEren elkarretaratzea bihar, epaitegian

Euskal Herrian Euskaraz taldeak deituta, justizian euskararen presentzia aldarrikatzeko elkarretaratzea izango da bihar, zapa-tua, Bergarako epaitegian, 12:00etan. EHEk dei egiten die euskaltzale guztiei parte hartzeko. Era berean, apirilaren 4an Lesakan hizkuntza eskubideen aldeko ekitaldia izango dela gogoratzen dute.

### Langabeei zuzendutako makina-erreminta operadore ikastaroa Udalaren eskutik

Udaleko Enplegu Zerbitzuak langabeei zuzendutako makina-erreminta operadore ikastaroa iragarri du. Eskolak apirilaren 19tik uztailaren 2ra bitartean izango dira, aste barruan, Miguel Altuna institutuan. Ikastaroa doan da eta interesatuek Udaleko Enplegu Zerbitzura (943 77 91 24) jo dezakete izena ematera.



**AZPIEGITURAK** / Bergarako udala Diputazioaren erantzunaren zain dago, mendia eusteko lanak noiz egingo dituzten jakiteko

# Urteagako auzotarrak, konponbidearen zain

E.M.

Urteaga kalean zirkulazioa eten zuten azaroan. Urteagako 29ko lagunek udaberrian ere etxetik irten behar izan zuten mendian gertatutako lerraduraren ondorioz. Auzotarrak eta inguruko enpresak haserre daude behin betiko konponbiderik hiltzen ez delako.

2003ko azaroaren 26tik hona daude etxetik kanpo Urteaga 29ko bost familiak, mendian gertatutako beste lerradura baten ondorioz. 2003ko udaberrian arrazoi beragatik irten behar izan zuten. Segurtasuna bermatzeko, GI-632 errepidea ixteko erabakia hartu zuen Diputazioak azaroan. Hasi- ra baten, sei bat hilabetez errepide itxita egongo zela adierazi zuten udalak eta Diputazioak, baina behin betiko konponbidearen zain jarraitzen dute auzotarrak eta inguruko enpresek. Antzuola alderako joan-etorria

egiteko errepidea erabiltzen duten gidariek ere bere haserrea azaldu dute, bidea dezente luzatzen baitzaie ekialdeko saihesbidea erabiltzeagatik (ia zazpi kilometro inguru gehiago Bergaratik Antzuolara heltzeko).


Konponbide heldu bitartean, Urteaga 29ko bizilagunek udalak ordaindutako etxe partikularretan jarraitzen dute. Manoli Torres dugu kaltetutako bat. Zera esan digu Manolik: "Gure etxeetara bueltatu nahi dugu, baina ez dugu inolako mugimendurik sumatzen. Diputazioa egin beharkeko lanen kargu egingo zela esan ziguten, baina denbora dezente pasatu da eta ez da ikusten ezer egiteko asmoa dutenik".

### MENDIA EUSTEKO LANEN ZAIN

Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, Diputazioak egingo ditu mendia eusteko lanak. Hala ere, udaletxean ez dute Diputazioaren erantzunik jaso orain arte eta ez dakite noiz hasiko dituzten lanak.



Diputazioari eta Bergarako Udalari konponbidea eskatzen diote kaltetuek.



### Etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa abian

Gizonen eta emakumeen artean etxeko ardurak trukatzeko ikastaroa hasi zen astelehenean. Erretiratuuen egoitzan hamabi lagun izan ziren, Unai Maguna sukaldariaren esanetara. Bestalde, hamabost lagunek ekin zioten egurgintza eta elektrizitate ikastaroari, Asun Gamarra irakaslearekin. Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako ikastaroan, besteak beste, joskintza, lisatzea, garbiketa, iturgintza, brikolajea eta etxeko ekologia ikasteko aukera izango dute partaideek. Ikastaroa maiatzaren 5ean amaituko da.

## Jardun elkartearen batzar orokorra izango da eguenean

Jardun euskara elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren eguenean, apirilaren 1ean, kultur etxean, 19:00etan.

Elkarteak dei egiten die bazkide guztiei egueneko batzarrean parte hartzeko. Jardun elkar- tea 1990ean sortu zen, eta gaur egun 586 bazkide dira.

### EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANA

Joan zen urteko batzar orokorreko aktaren irakurketa eta onarpena egin ondoren, 2003an egindako ekitaldien balorazioa egingo du Jarduneko zuzendaritzak. Era berean, aurten elkarteak bultzatuko dituen egitasmoen berri emango zaie bazkideei.

Olatz Olaso dugu elkarteko presidentea joan zen urteaz gero. Aurtengo erronken gainean zera adierazi digu: "Gaztetxoan artean euskararekiko motibazioa piztu ahi dugu eta euskaltegiekin eta



Argazkian, joan zen urteko batzarreko irudi bat.

euskaldun berriekin lanean jarraituko dugu, euskararen presentzia indartzeko. Era berean, Jardun Euskara Biziberritzeko

Plana aurrera eramateko lanean izango da. Elkartearen webgunea sortzea da beste helburuetako bat 2004. urterako".

## Aste Santua 04


Salou	105 eurotik aurrera
Peñíscola	189,18 eurotik aurrera
Tenerife	105 eurotik aurrera
Mallorca	374 eurotik aurrera

Bretainia-Normandia	305 eurotik aurrera
Tirol	370 eurotik aurrera
Tunez	458 eurotik aurrera




Barceló  Bidaiak





## MAXI GOMEZ ENTRENATZAILEAREKIN IBILITAKOEN AFARIA

**M**axi Gomez Bergara KEko futbol saileko entrenatzailea izan zen 1970eko hamarkadaren hasieran. Hain zuzen ere, lau urte eman zituen entrenatzaile lanetan 1971tik aurrera, lehenbiziko hiru urteak infantil mailako taldearekin eta laugarren denboraldia gazte mailako taldearekin. Harekin ibilitako jokalariek afaria egin zuten martxoaren 13an, Pertxan. 33 lagun elkartu ziren eta izan zuten bai gaztetako oroitzenak gogora ekartzeko aukera, umore onean gainera. Era berean, Maxi Gomezi opari bat eman zioten, oroigarri modura. Eskumako argazkian, Maxi Gomez, Pedro Egaña (sasoi hartan Bergara KEko presidentea) eta Jose Luis Beitia taldeko delegatua.



## SERAFIN ESNAOLA PLAZA TRINTXERPEN

**S**erafin Esnaola zenaren izena jarriko diote plaza bati Pasaian, Trintxerpeko distrituan. Izenaren proposamena Arraindegi kaleko bizilagun elkarteak eta Pasaia Udaleko EAJko zinegotziek egin zuten. Ezker Batuko bi zinegotziak izan ezik, gainerakoak alde azaldu ziren. Serafin Esnaola apaizak lan handia egin zuen pasaiatarren alde. *Trintxerpe, el cierre de una iglesia* liburua argitaratu zuen 1994an, eta aipatutako liburua auzoari eskainitakoa da. Bergaran ere urtetan egon zen apaiz, San Antonion. Arraindegi kalearen amaieran egin duten plaza berria inauguratzeko egunik ez dute oraindik jarri.



## TXISKRILABIKOAK ZARAUTZEN

**J**ardun elkarteko Txiskrilabi taldeko gaztetxoak Zarautzen izan ziren aurreko aste bukaeran. Hamalau urteko 21 gaztetxo joan ziren Zarautzko aterpetxera eta beraiekin batera Idoia Retegi, Ugaitz Catalan eta Amaia Ortiz de Urbina begira-leak izan ziren. Eguraldia lagun, ekitaldi mordo egin zituzten eta hondartzan jolastu eta bainua hartzeko aukera ere izan zuten. Batzuentzat uda aurreratu egin da...

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

Etxebizitzaren promozioa Antzuolan

- Egongela
- 3 logela
- 2 bainugela
- Sukaldea
- Terraza
- Garajea
- Trastelekua

Informazioa: 680 56 09 70

Aldoka  
Maldoka

TABERNA


Kruz Gallastegi  
BERGARA



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45



MINGAINARITIRAKA



### Jesus Kalboetxeaga

ZUHAIZTI JATETXEKOA

Lanbidez sukaldaria da gaur egun Jesus; aurretik, baina, publizista, diseinatzaile eta kazetari ere ibilitakoa da. Oso gustuko du bere lanbidea; gainera, sukaldaritza ikasitakoa da. Publizitate ikasketak ere egina da.

Noiztik zabilta jatetxean?

Hamabi bat urte daramatzat nik hemen.

Orain dela gutxi eguneko menua ematen hasi zarete. Zer moduz?

Ondo; orain dela pare bat hilabete hasi ginen eguneko menuak ematen. Ikusi nahi genuen zela funtzionatzen zuen, eta oraingo, behintzat, oso gustura gaude.

Zeuretako, zein da menu ideala?

Barazkiak asko gustatzen zaizkit, borrajak, esaterako; bestalde, arraina okela baino nahiago dut.

Eta horrekin batera edateko?

Janari bakoitzarekin, edari egokia hartzea gustatzen zait: arrainarekin ardo zuria, okelarekin ardo beltza, txorizoarekin sagardo...

Batere gustatzen ez zaizun janaria?

Egia esan, denetik jaten dut.

Zeu sukaldaria zara. Zure espezialitatea zein da?

Uf, ez dakit. Barazki krepeak, postreak... (Lankideek esan digutenez, elaborazio handia eskatzen duten platerak dira bere espezialitatea).

Etxean ere sukaldari lanak egiten dituzu?

Bai, Izarra neska-lagunak eta biok erdibana egiten ditugu. Dena dela, jatordu gehienak jatetxean egiten ditugu.

Zure lanaren alde txarrena? Eta onena?

Ordutegia da txarrena; onena, berriz, gustuko dudala neure lana eta ez dudala nagusi bat nire gaineratik.

Zaletasun bat?

Paseatzea eta zinema.

Film bat?

Las invasiones bárbaras.

Liburu bat?

Eh Petrel!, Julio Villar-ena.

Musika talde bat?

Ezin izango nuke talde bakar bat aukeratu; 1960ko eta 1970eko hamarkadetako musika taldeak gustatzen zaizkit.

AINZANE IRIZAR

### KANPOTARRAKBERGARAN

### BATIRTZE ARANTZABAL

36 URTE / ARGENTINARRA / ORAIN DELA URTE ETA ERDITIK BIZI DA BERGARAN

## “Hona etorri nintzenean, izugarria izan zen nire hemengo familiak zenbat lagundu zidan”

AINZANE IRIZAR

**B**atirtze izenarekin, argi genuen euskal jatorria izan behar zuela argentinarrak; eta, halaxe da: bere aita zena, Sebastian Arantzabal, bergararra zen; ama ere euskal jatorrikoa, Tolosako familia zuena.

Batirtzeren aita 1958an joan zen Argentinara bizi izatera, bizitza hobe baten bila. Eta bera ere horrelaxe etorri zen, orain dela urte eta erdi. Zortzi urteko bere semearekin, Sebastianekin, bizi da hementxe. Orain dela pare bat hilabete, Argentinako bere lehen-gusina bat ere eurekin bizi da.

Horrelaxe gogoratzen ditu Batirtzek Bergarara etorri zeneko garaia: “Argentinan lanik gabe nengo; ondo bizitzetik, nahikoa gaizki bizi izatera pasa-

*“Euskaldunok itxiak izateko fama duzue, baina ni oso ondo hartu naute, hasiera-hasieratik”*

tu ginen, eta hona etortzea erabaki nuen”. Bergarako familiaren laguntza handia izan zuen, eta gaur egun ere badauka: “Ahal izan duten guztia egin dute familiakoek nigatik; ezin izango diet inoiz egindako guztia ordaindu. Aurretik ez genuen elkar ezagutzen, bagenuen elkarren berri, baina ez genuen elkar ezagutzen”.

Etorri zenean, Lasa jatetxean, hasi zen lanean; orain, taberna

bat dauka Bolu auzoan, bazkide batekin batera.

Oso ondo moldatu da Bergarako bizimodura Batirtze; baita bere semea ere. Euskaraz ere azkar ikasi ei zuen Sebastian txikiak: “Oso gustura dago Sebastian hemen; euskaraz ere oso ondo egiten du; orain, nik ikasi beharko dut. Ulertzen dut pixka bat, baina ez dut hitz egiten; laster ikasten hasteko asmoa daukat”, azaldu digu Batirtzek.

Askotan entzun ei du Batirtzek euskaldunok oso itxiak gara, eta errezelo pixka batekin etorri ei zen; segituan aldatu zuen, baina, iritzia: “Egia da hitz egiterakoan, esaterako, baldar samarrak zaretela; baina ni oso pozik nago jasotako tratuarekin. Hasiera-hasieratik oso ondo hartu naute Bergaran, izugarria izan da”, gogoratzen du.

Badago, baina, harritu zuen gauza bat: “Izugarriak zarete; taberna barik ezin zarete bizi. Hemen taberna guztiak itxiko balira, ez zenukete jakingo zer egin ere. Bestetik, harrigarria da zelako erraztasunarekin topatzen dituzuen bazkariak edo afariak egiteko aitzakiak. Ez dut esan nahi ohitura horiek txarrak iruditzen zaizkidanik, e!”.

Argentinara itzultzearen gainean galdetuta, argi eta garbi erantzun digu: “Nik ez daukat hara itzultzeko batere asmorik; bisitan ere ez dakit inoiz itzuliko naizen”. Lagun batzuen hutsunea nabaritzen du, eta baita anaiarena ere; baina, gainerakoan, ez dauka lotura handirik Argentinan: aita aspaldi hil zitzaion, eta ama, berriz, orain dela bi hilabete inguru. Dagoeneko egin du bere bizimodua hemen, eta ezin hobeto dagoela azaldu digu.


Semeak ere ez du Argentinara itzultzeko batere gogorik. Zera esan digu: “Hemen oso ondo bizi zarete; ez ekonomikoki bakarrik, baita bestela ere. Sebastian lasai-lasai ibil daiteke kalean. Segurtasun handia dago hemen. Argentinan, berriz, umeak ezin dira kalera jolastera atera”.



**EL CARMEN**  
GARBIKETA  
ZERBITZUAK


Lantegien garbiketa eta mantenimendua  
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak  
Moketa garbiketak  
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39  
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



TXIRRINDULARITZA

# Gorlako igoeraren 30. ekitaldian 120 txirrindulari inguruk jardungo dute lehian

Proba goizeko 10:00etan hasiko da San Martin plazan eta irabazlea 12:30ak aldera iritsiko da Gorla gaineko helmugara

IRATI AGIRREAZALDEGI


Domekan jokatu da Gorlako txirrindulari igoeraren 30. ekitaldia. Eliteko eta 23 urtez azpiko 120 bat parte-hartzaile izango dira proban. Lasterketa 10:00etan hasiko da San Martin plazan eta 12:30ak inguruan amaituko dute lehenengoak.

Azken urteotan bezala, txirrindulariek 90 kilometrotik gorako ibilbidea egin beharko dute domekan. Lehen, plazan abiatu eta Gorlara igotzen ziren txirrindulariak, eta probak ordu erdi inguru irauten zuen. Orain, aldiz, lasterketa luzeagoa da. Goizeko hamarretan hasiko da San Martin plazan eta ondoko ibilbidea egingo dute: Arrasate, Eskoriatza, Bergara, Gorla (43. km.), Urretxu, Deskarga (72. km.), Bergara eta Gorla.

Ibilbidea aldatu zutenetik partaidetzak gora egin du eta aurten eliteko eta 23 urtez azpiko 120 bat txirrindulari izango dira irteeran. Bi ordu eta erdi inguru beharko dituzte ibilbidea amaitzeko eta sari banaketa 12:30ak edo 13:00ak inguruan egingo dute.

## FABORITORIK EZ

Ez da erraza domekarako faboritoak zein diren esatea. Baina proba Euskaldun lehiaketarako puntuagarria denez, sailkapenean aurreko postuetan daudenez izango dute podiumean egoteko aukerarik. Lehenengoak honako hauek dira: Jorge Azanza (Caja Rural), Ruben Perez (Orbea-Olarr-Consultec), Josu Agirre (Serbitzu-Kirolgi), Beñat Albizuri (Orbea-Olarr-Consultec), Angel



Gorla gainetik bi aldiz pasako dira txirrindulariak, 11:00ak aldera lehenengo eta probaren amaieran bigarren aldiz, 12:30ak inguru.

Vazquez (Azysa-Swell-Kider), Alan Perez (Orbea-Olarr-Consultec), Antonio Cosme (Cafes Baque) eta Alexander Juanikorena (Serbitzu-Kirolgi). Bestalde, Iñaki Lejarretak ere azken urteetan aurreko postuetan amaitu du Gorlako lasterketa, eta aurten podiumean egon daitekeela esan digute antolatzaileek.

## BERGARARRAK IRTEERAN

Etxean jardungo duten arren lanak izango dituzte bergararrek Gorlako aldapan eta baita ibilbidean zehar ere. Hala ere, euren

*Txirrindulariek 90 kilometrotik gora egin beharko dituzte domekan bizikleta gainean*

ahalegina egingo dute aurten. Ander Agirre eta Kepa Varela bergararrek hartuko dute parte seguru aski eta baita Lokatzako harrotatik irteerako Xabier Aranguren

elgetarrak ere. Ander Agirrek bosgarren aldia du Gorlako igoeran, eta txirrindulari bergararrek esan digenez, "gogorra da Gorlako igoera eta oso zaila da irabaztea. Profesionaletara salto egingo dutenek hartzen dute parte lasterketan eta horiek dira irabazteko aukera gehien dituztenak". Herrian izateak badu berezitasunik Agirrerendako: "Kategoria honetan, Balentziaga proba eta Gorlako igoera dira inguruko ezagunenetakoak, eta ibilbidean zehar jende asko egoten da animatzen", esan digu.

Antolatzaileek esan digutez, txirrindulariak pasatzen diren unean baino ez da moztuko errepidea. Gainontzean ibilgailuak normaltasunez pasatu ahal izango dira bertatik.

## LOKATZAREN ZOZKETA

Bestalde, domekan Gorlara joaten diren zaleei gogorarazi nahi diete Lokatzak zozketa egingo duela. Urdaiazpiko bat eta ardo kaxa bat emango dituzte opari. Zozketa txartelak Gorlan bertan salduko dituzte eta zozketa domeka eguerdian egingo dute.

## FOTOKIROLA




## Joma irabazle Madura txapelketan

Eskola arteko Madura futbol txapelketaren azken partiduak jokatu ziren aurreko domekan, hilaren 21ean, Ipin-tzan. Denetara hiru norgehiagoka izan ziren. Hain zuzen ere, Solano taldea bosgarren tokian sailkatu zen, Zikoiak taldeari 7-3 irabazita. Mapfre izan zen hirugarren, Madura 94 taldeari 5-3 irabazita. Eta, azkenik, txapelduna Joma taldea izan zen, Madura 93 taldeari (argazkian) 5-2 irabazita. //A.

## GIMNASIA ERRITMIKOA

## Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzeko probak zapatuan, goizez eta arratsaldez

Bihar, zapatuan, goizez eta arratsaldez, Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzeko probak izango dira Labegaraietako kiroldegian. Goizez, 11:00etan hasita benjaminek erakustaldia egingo dute. Arratsaldez, berriz, gainontzeko gimnasta guztiak jardungo dute, bos-tetan. Horrela, aurrera egiten duten neskek finala jokatu dute maiztasunez, baina oraindik zehazteke dago non.





PILOTA

# Senior eta gazteak nagusi Debarroko Txapelketako lehen jardunaldian

Jokoa oso desorekatua izan zen hiru partiduetan, eta kadeteek ez zuten berez duten maila erakutsi

IRATI AGIRREAZALDEGI

Debarroko Pilota Txapelketako 67. edizioari ekin zioten Bergarako pilotariak martitzenean Udal Pilotalekuan. Guztira, hiru bikotek jardungo dute torneoan. Lehen jardunaldian seniorrek eta gazteek irabazi egin zuten eta kadeteek, berriz, galdu.

Begarako hiru bikotek jardungo dute aurten Debarroko 67. Pilota Txapelketan. Lehen saioa Bergarako Udal Pilotalekuan izan zuten martitzen arratsaldean.

Kadeteen txanda izan zen lehengo, eta Oier Aldaik eta Aitor Osak Antzuolakoen aurka jokatu zuten. Entrenatzaileak esan digunez, "Antzuolako mutilenarekin konparatuz gero ez dago alde handirik euren mailan. Baina martitzenean bergararrek gaizki hasi zuten norgehiagoka eta antzuolarrak nabarmen nagusitu ziren". Emaizta 6-22 izan zen Antzuolako bikotearen alde.

Seniorretan Muguruzak eta Gutierrezek Antzuolako bikotea izan zuten aurrez aurre. Bergarakoak nagusitu ziren norgehiagokan eta emaitza 22-5 izan zen.

Azkenik, gazteetan Eneko Muguruzak eta Ibai Altunak Arra-



Debarroko Txapelketan parte hartzen diharduten Bergarako sei pilotariak lehen saioa hasi aurretik.

sateko bikotearen kontra jardun zuten eta 22-9 irabazi.

Horren harira, Bergararen entrenatzaile Reyes Azkoitiaren hitzetan, "partidu guztiak oso desorekatuak izan ziren, eta horretaz jabetzeko emaitza ikusi besterik ez dago".

**BI SAIO ETXETIK KANPO**

Ibarrean, baina etxetik kanpo izango dituzte datozen bi saioak. Egunak oraindik ez dituzte zehaztu, baina partiduak Eskoriatzan eta Arrasaten izango dira.

Txapelketa hasi berri den honetan zaila da aurreikuspenak

egitea beste herrietako pilotarien maila nolakoa den jakin gabe. Baina Reyes Azkoitiaren esanetan, "finalerdietara iristea da gure nahia. Seniorrek izan dezakete aukerarik eta gazteak ere irits litezke. Kadeteek, ordea, zailagoa izango dute".

# Preferente mailako taldeak liderra, Elgoibarko taldea, izango du aurkari domekan Agorrosinen

I.A.

Begarako sei futbol taldek jokatuko dute etxean asteburu honetan. Bi partidu zapatuan izango dira eta gainontzekoak domekan. Preferente mailako taldeak liderraren aurka jokatuko duenez, bazkideek prezio erdia ordaindu beharko dute norgehiagoka ikusteko.

Begarako talde gehienek etxean jokatuko dute asteburuan. Zapatuan bi partidu izango dira Ipintzan. Eguerdian, 12:00etan, bigarren mailako kadeteek Soraluze taldearen kontra jokatuko dute. Arratsaldean, berriz, erregional mailakoek jardungo dute ordiziarren aurka. Partidua 16:30ean hasiko da.

Domekan, goizean, lehen mailako kadeteek Aretxabaletako taldearen kontra jokatuko dute, 10:00etan hasita, Ipintzan. Leku berean, baina eguerdiko hamabietan, ohorezko mailakoek izango dute hitzordua Mariñoren aurka jokatzeke.



Preferente mailako taldeak norgehiagoka gogorra izango du Elgoibar sailkapeneko liderraren kontra.

**LIDERRA AGORROSINEN**

Arratsaldean, preferente mailako taldeak 17:00etan izango du partidua. Ez da nolana hiko partidua izango, gainera. Izan ere, liderra, Elgoibarko taldea, izango dute mahoneroek aurrez aurre Agorrosingo zelaian.

Partiduak ikusmina sortuko duela-eta, Bergara Kirol Elkar-teak domeka klubaren egunerdia izendatzea erabaki du. Beraz, bazkideek sarreraren erdia baino ez dute ordaindu beharko norgehiagoka garrantzitsu hau ikusteko.

Etxean jokatuko duten azkenak neskak izango dira. Bergarako hamaikakoak Ipintzan jokatuko du Eibarren aurka, 19:00etan. Futbola gustuko dutenek, beraz, asteburu honetan badute herrian partidu onekin gozatzeko nahikoa aukera.

ESKUBALOIA

## Nesken bi partidu domeka goizean Labegarietan

Mutilek ligako partiduak amaitu dituzte eta aurki kopakoekin hasiko dira. Neskak, berriz, ligako azken txanpan sartu dira. Domekan, kadete mailako nesken 10:45ean Mollarri taldearen aurka jokatuko dute. Nagusiek, berriz, IES Lakua ekipoaren kontra izango dute norgehiagoka, 12:30ean hasita. Nagusien partidua oso garrantzitsua da. Izan ere, bi partidu falta dira eta lau talde puntu berekin daude. Eta, hain justu, horietatik bi mailaz jaitsiko dira.

MENDIA

## Arabako Toloño mendira irteera izango da domekan

Pol-Pol mendizale taldeko gazteek antolatuta, datorren domekan, martxoaren 28an, egun osoko mendi irteera izango da Arabako Toloño mendira. Goizeko zortzietan abiatuko dira mendizaleak, eta hitzordua pilotaleku aurrean egin dute. Irteera honetara joan nahi dutenek txartela erosi beharko dute frontoiko tabernan edo Pol-Pol tabernan. Txartelek hamar euro balio dute. Pol-Polekoek Bergarako gazte guztiak animatu nahi dituzte ibilaldi honetan parte hartzera.

## LABEGARAIETA

### PARTIDUAK

**ZAPATUAN, KANPOAN**

- 10:30: Torrekua-Fit Automocion. FAC
- 11:30: FAC-Torpedo Musakola. Torrekua
- 16:00: Teatekh-Cosa Nostra. Ganbara
- 17:00: Bedarreta-Ganbara. Cosa Nostra
- 18:00: Pagomendi-Artusamak. Bedarreta

**DOMEKAN, BARRUAN**

- 16:00: Ganbara-A Ze Flaxa. S.D.T.N.T.
- 17:00: De Resaka-S.D.T.N.T. Ganbara
- 18:00: Kalaveras-T.M.T. Vervenir
- 19:00: Pirulotarrak-Vervenir. Argandolas
- 20:00: Canalejas-Argandolas. Pirulotarrak

**DOMEKAN, KANPOAN**

- 09:00: Mongatxurra-Txipiron. Belengua
- 10:00: Txipiron-Belengua. Mongatxurra
- 11:00: Etengabe-Erottagain. T. Añiketan
- 12:00: T. Añiketan-Etengabe. Agirrebeña
- 13:00: Agirrebeña-P.D.S. Kalaveras
- 20:00: Canalejas-Argandolas. Pirulotarrak



# MULTIOPTICAS

al-aire  
armazoaia

88€

eta  
eguzkitako  
betaurrekoak  
opari

**LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN**

R.P.S. N° 164.99 I.L.G.

Ibargarai 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

J. Carlos Guerra 1  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel.: 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

Bidebarrieta 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

Esmalteria Plaza  
Tel.: 943 51 78 11  
**ERRENERIA**

Mendibil M. G.  
Tel.: 943 63 99 01  
**IRUN**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**

**Mirari**

udaberria JANTZIDENDA uda

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93





2004ko martxuaren 26xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 14. alia

## IEPA LAGUNOK!

Ikusi, ikusi zer egingo luketen alkate izango balira  
Eta zuek? Zerbait hobetuko zenukete Bergaran?

## IA ASMATZEN DOZUEN

Futbol txapelketa baten lau taldek parte hartu dabe: talde gorrixak, talde urdiñak, talde horixak eta talde berdiak. Danera txapelketan hiru jokaldi egon dira eta ondorengo emaitzak lortu dittue.

### • 1go jokaldixa:

- *Gorrixa - Urdiña*: lau eta bi, talde gorrixak irabazi dau.
- *Horixa - Berdia*: bat eta bost, talde horixak galdu dau partidua.



### • 2go jokaldixa:

- *Gorrixa - Horixa*: hiru eta bost, talde gorrixak galdu dau.
- *Urdiña - Berdia*: Talde urdiñak bi gol sartu dittu eta berdiak partidua irabazi arren, aurreko jokaldixan baiño bi gol gutxiago sartu dittu.

### • 3go jokaldixa:

- *Gorrixa - Berdia*: biña egin dabe.
- *Urdiña - Horixa*: zazpi eta bi talde urdiñak irabazi dau partidua.

• Zein taldek irabazi dau Futbol Txapelketia?  
Eta zein izan da txapelketako sailkapena?

	Zenbatgarren postuan gelditu da taldea?	Zenbat gol sartu dittu taldiak?
TALDE GORRIXA		
TALDE URDIÑA		
TALDE HORIXA		
TALDE BERTIA		

## URREZKO ARAUAK

Lau eta bi irabazi dabe  
Zer egingo ziñuke alkate izango baziña?



Lau bi irabazi dabe  
Zer egingo ziñuan alkate izango baziña?



## ABESTIXA

### Magila

Atzo Magila ikusi neban,  
Magila hasi zan dantzatzen.  
Dantza bugi- bugi  
dantza bugi- bugi  
eta ondo pasa!



## INKESTIA

• Zer egingo ziñuke alkatea izango baziña?



ANDONI ETXEZARRETA  
10 urte

Alkatea izango banintz igerilekuak berrituko nittuzke, aparkaleku gehiago jarriko nittuzke, barrakak merkiago jarriko nittuzke, ume pobriei lagunduko notsake eta arratsaldietan txontxongilluak egongo lirake.



MAITE ELORZA  
9 urte

Alkatesa banintz zoologiko bat eraikiko neuke. Bestalde, eskaillera normalak egon biharrian, eskaillera mekanikuak jarriko nittuzke. Telebistan anunzio gutxiago agertuko lirake eta gaiñera lurra bakarrik garbittuko litzake.



ASIER KORTABARRIA  
11 urte

Alkatiaren lekuan ni egongo banintz, lehenik eta behin jai egun gehiago jarriko nittuzke.

Gaztiak be gehiago hartuko nittuzke kontuan eta euren gauza gehiago ipiñiko nittuzke.



**ANTZERKIA/** Besteak beste, Chapertons talde katalana eta Yangzhouko txinatarrak izango dira Bergaran

# Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko Mostra, maiatzaren 20tik 23ra bitartean

EDU MENDIBIL

Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko Mostra izango da Bergaran maiatzaren 20tik 23ra. Taun-Taun taldekoek egitaraua guztiz zehaztuta ez badute ere, Chapertons talde katalanak eta Yangzhouko txinatarrak Bergaran izango direla baieztatu dute jadanik.

Taun-Tauneko kideak Mostraren zazpigarren ekitaldiko programa zehazten ari dira egunotan. Helduentzako Txotxongiloen Nazioarteko Mostra maiatzaren 20tik 23ra bitartean izango da Bergaran. Besteak beste, maila handiko bi talde bisitari izango ditugu Bergaran: Chapertons katalanak eta Yangzhouko Txotxongiloen Teatro taldea.

Chapertons taldearen *Boom!* ikuskizuna Novedades aretoan ikusteko aukera izango dugu. Chapertons taldeko kideek mundu zabalean eskaini dute *Boom!*, kritikaren aldetik harrera beroa jasoaz. Gaur egun Feliu Plasenciak, Jordi Miquelek eta Kike Farraguteg osatzen dute Chapertons eta, besteak beste, Edinburgo eta Tarregako jaialdietan arrakasta handia lortu dute. Itxaso Azkarate Taun-Tauneko kideak zera adierazi digu: "Keinuekin eta objektuekin jolasten duen ikuskizuna da *Boom!* eta erruberen hagunekin gauza harrigarriak egiten dituzte aktoreek. Oso



Chapertons taldeak arrakasta handia lortu du mundu zabalean *Boom!* ikuskizunarekin.

ikuskizun barregarria da eta jendearen gustukoa izatea espero dugu".

Bestalde, Yangzhouko Txotxongiloen Teatro Taldeak tradi-

zio handia dauka bere jaioterrian, Txinan: "Mostraren aurreko ekitaldietatik zerbait diferentea ekarri nahi genuen eta Txinako txotxongiloen tradizioaren adieraz-

garri bikaina da Yangzhouko taldea, 40 urtetik gorako ibilbidea daukate-eta. Errepertorio zabala duen taldea eta 300 kide inguru dituzte. Hala ere, Bergarara eka-

*Mostrako emanaldiak Novedades aretoan, gaztetxean eta kalean izango dira*

rriko duten ikuskizunean sei manipulazaila eta lau teknikok hartzen dute parte. Mostrako bitxikerietako bat izango da, zalantzarik ez", diosku Itxasok.

## HIRU ANTZEZLEKU MOSTRARAKO

Esan bezala, programa guztiz zehazteke dago oraindik. Hala ere, baliteke Iparraldeko Traiboules taldea etortzea *Gure baitako ilargiak* ikuskizunarekin. Era berean, antolatzaileek ez dute baztertu aurrekoetan arrakasta nabarmena lortu duten El chonchon taldea eta Hugo eta Ines bikotea ekartzea. Aurtengo Mostrako emanaldiak hiru tokitan izango dira: Novedades aretoan, gaztetxean eta kalean.

## TAUN-TAUN, TERUELERA

Martxoaren hasieran Gijongo Feten jaialdian *Galtzerdia* antze-lanaren gaztelerako bertsioa erakutsi ondoren, Taun-Tauneko Terueleko Mostran parte hartuko du domekan. *Txio txio*ka eskainiko dute bergararrak Teruelen.

## 'El feeling es así' antzezlanak gaur gauean Zabalotegin

E.M.

Tearto antzerki taldeak *El feeling es así* lana eskainiko du gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean. Enriqueta Vegak eta Maria Urtelai bergararrak osatzen dute Tearto taldea. Bergaran urriaren 31n eskaini zuten *El feeling es así*, gaztetxean, arrakasta handiz gainera.

### MUSIKA ETA UMOREAREN DAKO TARTEA

Maria Urtelaiek esandakoaren arabera, ondo pasatzeko sortutako lana da *El feeling es así*. Bi emakumeren gorabeherak azaltzen dituzte: "Adiskidetasunean gertatzen diren gauzak azaldu nahi izan ditugu. Bi neskek nahiko bakarrik sentitzen dira eta hori gainditzeko beraien mundu propioa sortzen saiatzen dira. Ondo pasatzeko modu horretan islatzen da münduaz duten ikuspegia", diosku Mariak. Musikak



Enriqueta Vegak eta Maria Urtelaiek osatzen dute Tearto taldea.

berebiziko garrantzia dauka antzezlanean: "Gure gustuko abestiak eta gure gustuko koreografiak aukeratu ditugu eta umorea oso aintzat hartzen da".

Emanaldirako sarrerak 6 eurotan salgai jarriko dituzte. 26 urtetik azpikoek 4,5 euro eta 17 urtetik azpikoek 2 euro ordaindu beharko dituzte.

## LABUR

### Antzerki emanaldia gaur, egubakoitza, eta musika kontzertua bihar gaztetxean

Pablo del Mundilloren eskutik *El comico de los caminos* antzezlanak izango da gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:30ean hasita.

Bihar, berriz, Smoking Bird (Alacant), Paniks (Barakaldo) eta Bergarako Elebators taldeek kontzertua eskainiko dute, 22:30etik aurrera.

### Gaur hasita, hiru musika jaialdi izango dira datozen egunotan Jam aretoan

Jam aretoak programa zabala osatu du datozen egunotararako: gaur, egubakoitza, Terroristars eta Evirus 69 taldeek joko dute, 22:00etatik aurrera; etzi, domeka, Love with Arthur Lee eta Electric Riders taldeen emanaldia izango da, 20:30ean hasita eta, azkenik, eguaztenean, martxoaren 31n, Nomeansno eta Ya te digo taldeak izango dira Amilagako aretoan, 21:00etan.

### Pazkoetako programa egiteko lehiaketako lanak eguaztenera arte jasoko dituzte

Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketarako lanak martxoaren 31ra arte jasoko dira, kultur etxean. Kartelek 46x61 zentimetroko neurria izan beharko dute. Lanak paperean inprimatuta edo disketean aurkeztu ahal izango dira. Ondoko testu eraman beharko dute: *Pentekoste jaiak 2004 Bergara*.



E, TXO!

**'BASQUE PLANET' MUSIKA BILDUMA KALEAN**

Euskal musika munduan zabaldu eta hedatzeko asmoz, *Basque planet* izeneko bilduma kaleratu du Wagram Music Internacional zigiluak. Kantuen aukeraketa Fermin Muguruzak egin du. Euskal Herri osoko 19 talde eta bakarlariren lanek osatzen duten bilduma hau Euskal Herrian egiten den musikaren adierazgarri izateko jaio da. Trikitixa, ska, hardcorea, rocka zein musika esperimentala jasotzen ditu.

**UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

Xipizaro ludotekatik jakinarazi digutenez, begiraleak behar dituzte uztailaren egingo diren udaleku irekietarako. Izena eman nahi dutenek apirilaren 19tik 30era bitartean ludotekara joan beharko dute 17:15etik 19:30era. Begiraleek bete beharreko baldintzak dira euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoak izatea. Bestalde, udalekuetara joan nahi duten 2 eta 14 urte arteko umeendako izena emateko epea maiatzaren irekiko dute.

**TXARTELAK GAZTE INFORMAZIO GUNEAN**

Gazte Informazio Gunean txartelak eskuratzeko aukera dago. Nazioarteko ikasle, gazte eta irakasle txartelak batetik, eta bestetik aterpe kide txartelak. Txartelak egiteko, lehenengo, inprimakia lortu behar da. Internet bidez edo Gazte Informazio Gunean bertan; ondoren, bankuan edo aurrezki kutxan dirua sartu; eta, azkenik, dokumentazioarekin Gazte Informazio Gunea joan eta momentuan egingo dute txartela.

**GUREGAIK/ UDALEKUAK**

**Udalekuetara joateko izena emateko aukera**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Udaberrian sartuak gauden honetan batzuek Aste Santurako planak egiten hasiak dira; beste batzuk, ordea, jadanik udan zer egin pentsatzen dabilta. Udalekuetara joatea izan daiteke asmoetako bat.**

Irekita dago udalekuetan izena emateko epea, eta apirilaren 2ra arteko tartea izango da horretarako. Behin izena emanda, zozketa apirilaren 21ean egingo dute.


**TOKI ASKOTARA**

Adin tarte bakoitzak leku ezberdinetara joateko aukera izango du: Barria, Zornotza, Plentzia, Gorliz, Azkarate, Hondarribia,

La Arboleda, Orio, Zarautz, El Puy, Lurraska, Oñcineda, Turzioz, Zuhatza, Segura, Abaltzisketa, Lauaxeta, Orontze, Sastarrain eta Urduñara. Txandak zazpi edo hamar egunekoak dira eta badira ingelesa praktikatzeko udalekuak ere.

Bestalde, 14 eta 17 urte bitarteko gazteek Oporraldi programan eman ahal izango dute izena apirilaren 26tik maiatzaren 6ra artean. Abenturazko ekintzak egiteko aukera izango dute eta baita hizkuntzak (ingelesa, frantsesa eta euskara) ikasteko ere.

Interesatuak internet bidez egin dezakete eskaera [www.gipuzkoa.net/oporraldi](http://www.gipuzkoa.net/oporraldi) helbidean edo Gazte Informazio Gunean zein Kultura Zerbitzuan.



Euskal Herriko txoko askotan izango dira udalekuak.

ARTXIBOA

**LOTSABARIK/ Maddi Iñarra**

**“Konpainia onean edonora bidaiatuko nuke”**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Umoretsua da Maddi, baina argazkirako barretxo bat ateratzea asko kostatu zaigu. Hala ere, azkar erantzun dizkie gure galderei politikari gehienak higuigarriak iruditzen zaizkion neska honek.**

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?  
Jaiak luzatuko nituzke eta gazteondako gauza gehiago ipini.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?  
Autoen irudiak, asko gustatzen zaizkit eta.
- Telebistako saiirik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Maria Teresa Camposen *Día a día* saioa gorroto dut; gustuko, berriz, umorezkoak, *Los Simpson* eta *Siete vidas*, esaterako.

- Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?  
Politikaririk gehienak, Aznar bera bat esatekotan; gustuko, berriz, Agustín Aranzabal. Herrikoa da, eta Realekoa gainera.
- Zerk amorratzen zaitu?  
Jende faltsuak eta besteak baino gehiago direla uste dutenak.
- Zer estimatzen duzu besteengan?  
Nigan konfiantza izatea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?  
Zorionsua izateari. Horretarako lagunak inguruan izatea eta


nor bere buruarekin gustura egotea garrantzitsua da.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?  
Umoretsua naiz; bestalde, batzuetan perfektionistegia ere banaiz.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?  
Jaietan, kalean jende gehiago dabilela aprobetxatuz.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?  
Ez daukat idealik, denek dute zerbait ona.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaiaria bat?  
Konpainia onean edonora.
- Etorkizunerako amets bat?  
Gustuko lana izatea eta egonkortasuna lortzea.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa, 2. maila • ZALETASUNAK: Kalera irtetea eta irakurtzea • LIBURU BAT: *El clan del oso cavernario* • FILM BAT: *Como dios* • MUSIKA TALDEA: Linking Park • KIROL TALDEA: Reala

**TIRABIRAKA/ Joseba Lasas**







BERGARA  
**Oier Tola**  
Martxoaren 31an, 18 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Amaia San Torcuato**  
Martxoaren 28an, 11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, bereziki Maider.



BERGARA  
**Igor Okina**  
Martxoaren 18an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak, bereziki Gorritxo.



BERGARA  
**Irati Iñarra**  
Martxoaren 23an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Manex Azula**  
Martxoaren 21an, 9 urte.  
Urte askotarako!  
Aittitta eta Marianen partez.



ANTZUOLA  
**Amaia**  
Martxoaren 20an, 17 urte.  
Urte askotarako!  
Kudrilakoak.



BERGARA  
**Ainara Plata**  
Martxoaren 22an, 2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Naiara Azkarate**  
Martxoaren 20an, 4 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Lierni.



BERGARA  
**Julen Irizar**  
Martxoaren 26an, 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Paula Irizar**  
Martxoaren 17an, 18 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Idoia Narvaez**  
Martxoaren 26an, 15 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia,  
Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan  
17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua



BERGARA  
**Jose Angel Moraza**  
Martxoaren 24ean, 35 urte.  
Zorionak! Kakalardo  
gozoaren partez.



BERGARA  
**Maialen Goirizelaia**  
Apirilaren 3an, 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.




BERGARA  
**Mikel Agirre**  
Martxoaren 31an, 5 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Lara arreba.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen batzuan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste behinago ekartzeari komeni da.






San Juan I. A.  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

# UGARTE

## ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Zoruak • Leihoak • Ateak • Horma-armairuak



## KANTU-AFAIXA

*Afaixa, soinua eta kitarra jolialak  
Kantu liburustea*



**Aprilaren 2xan,  
Txarrantxa jatetxian**

*Lagunarte ederra pasatzeko modua, kantua*



**Prezioa: 20 €/ bazkideak 18 €**  
**Txartelak: Kortazarren eta Jardunen**  
**Izena emateko epea: Martxoaren 29xa**



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko martxoaren 26a / 195. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Bost proiektu aurkeztu dituzte Jaurlaritzaren Izartu planerako

AINTZANE IRIZAR

Martxoaren 22an, astelehena, bukatzen zen Eusko Jaurlaritzaren Izartu programarako proiektuak aurkezteko epea. Hilaren 17an egin zuten osoko bilkura, proiektu horiek onartzeko. Aste Santua aurretik proiektu horiek jendaurrean aurkeztuko dituzte.

Guztira, bost proiektu aurkeztu dizkio Udalak Eusko Jaurlaritzari, Izartu programarako.

Alde batetik, Uzarragara hartzen den zubitik Lizarraga auzora doan errepidearen proiektua aurkeztu dute. Bestetik, alde zaharreko zorua eta azpiegiturak berri-zeko proiektua aurkeztu dute.

Ibarre auzoa urbanizatzekeo proiektua ere Izartu programan sartzeko proposatu du Udalak, batez ere, dagoen aparkaleku faltari irtenbidea emateko. Sagastiko zelaian parke bat egiteko proiektua ere aurkeztu dute. Azkenik, gizarte edo kultura etxearen proiektua dago. Hantxe jarriko dituzte kultur jardueretarako lokalak eta hainbat gizarte zerbitzu. Hori guztia beheko bi solairuetan. Azpian, berriz, garajeak, eta gainean, etxebizitzak. Etxe-



Izartu programara aurkeztutako proiektuetako bat da Ibarre auzoa urbanizatzea.

bizitzetako batzuk Udalak babes-tutakoak izango dira; beste batzuk saldu egingo dituzte, garajeak bezala, irabaziekin, sortzen diren gastuei aurre egin ahal izateko.

Proiektuok sei milioi euroko aurrekontua dute, lau urtean

banatuta; Izartu programaren bitartez, %30 finantzatzea espero du Udalak; beste %30 udal aurrekontuekin, eta gainerakoa, irabaziekin.

Aste Santua aurretik, Udaleko arduradunek jendaurrean aur-

keztuko dituzte proiektuok, urtarrean egin zuten moduan.

Azkenik, aipatzekoa da kiroldegien proiektua Izartu programatik kanpo geratu den arren, Udalak kiroldegia egiteko asmoarekin jarraitzen duela.

## MUSIKA

### Patxi Saizek 'Galdetzen' diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, Herri Eskolako aretoan

Bihar, zapatua, egingo du kontzertua Patxi Saiz kantautoreak. 22:00etan izango da, Herri Eskolako aretoan. Hantxe, *Galdetzen* diskoa aurkeztuko du, bere lehendabiziko diskoa, hain zuzen ere. Aurretik, baina, hainbat maketa eta grabazio txiki argitaratu ditu Patxi.


Jesus Mari Lopetegiren Noiz-behinka estudioan, Zarautzen, grabatu ditu kanfuak Patxi Saiz kantariak. Mikel Markezen laguntza izan du, ekoizpen artistikoan. Bere kantuek nostalgia eta erro-

mantizismoa erakusten dizkigute. Iparraldeko hainbat idazleren hitzei jarri die musika *Galdetzen* diskoan; horrela, Manex Erdozaintzi, Etxahun Iruri eta Elizanbururen hitzak jaso ditu, eta berriro ere, inguru hartako literaturaren garrantzia argi lagatzen du.

**XABIER AGIRREK ERE PARTE HARTU DU** Patxi Saiz getariarra da, baina aspalditik dauka harreman estua Antzuolarekin eta bertako hainbat musikarirekin. Disko honetan, esaterako, Xabier Agirre musika-

ri antzuolarrak parte hartu du. Biharko kontzertuan ere taula gainean ikusiko dugu. Alboka, gaita, baxua eta hainbat txirula jotzen ditu Agirrek; ahotsa ere jartzen du.

Aurretik ere, beste maketa eta grabazio batzuetan, hainbat antzuolarrek lan egin du Patxi Saizekin. Lehendabiziko maketan, esaterako, Patxi Olabarriak, Eli Enak eta Xabier Agirrek parte hartu zuten; bigarren maketan, berriz, Alaitz Zabalok eta Xabier Agirrek berak parte hartu zuten Patxiarekin.



Patxi Saiz kantautorea.

## LABUR

### Karmen Irizar Valladolidera eraman dute

Karmen Irizar presoa Martuteneko espetxetik Valladolidera eraman zuten hilaren 15ean. Domekan izan zuten lehenengo bisita senitartekoei. Bestalde, aipatzekoa da apirilaren 4an dela Karmenen urtebetetzea; Gailur eta Larrea tabernetan postalak jarri dituzte, zoriontzeko.



Karmen, espetxeratu aurretik.

### Txotxongilo emanaldia bihar, zapatua, Olaranen

Txotxongilo Taldearen emanaldia izango dugu bihar, zapatua, Olaranen, 16:00etan. Aldatu egin dituzte Udalaren egitarauan iragarritako tokia eta ordua. *Itsasmin* ikuskizuna eskainiko dute, txotxongilo, diapositiba, musika eta beste hainbat elementuren laguntzarekin.

### Aitor Larrea hirugarren, Oñatiko duatloian

Aitor Larreak hirugarren egin zuen Oñatiko duatloian. Jon Arozena hondarribiarrak irabazi zuen lasterketa eta Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra bigarren sailkatu zen. Zortzi kilometro korrika, 40 bizikletan eta beste lau korrika egin zituzten. Aitorrek 1:46:38ko denbora egin zuen.



# Independentzia Eguna, bihar, zapatua

AINZANE IRIZAR

Bihar, hilak 27, ospatuko dute Independentzia Eguna. Antzuolako Gazte Asanblada arduratu da aurten egun horretako ekitaldiak antolatzeaz. Ekitaldi nagusia herri bazkaria izango da, udal pilotalekuan, 14:00etan. Eguneko ekitaldiak, baina, aurrez hasiko dira: 13:00etan triki poteoa egingo dute, herriko trikitilariekin. 14:00etan, esan bezala,

bazkaria. Bazkalosterako ere hainbat sorpresa antolatu dituzte. 19:00etarako, berriz, herri kirolak antolatu dituzte. Eta gauerdian, azkenik, Trikizio taldearen emanaldia egongo da.

## 374 URTE

Antzuola Bergararik banatu zela, independentzia lortu zuela, 374 bete ziren joan zen abenduaren 12an, eta horixe ospatuko dute zapatuan.



Aurten ere frontoian egingo dute herri bazkaria.



## Juanak 96 urte beteko ditu bihar

Herriko nagusia da Juana Gabilondo; bihar, martxoak 27, hain zuzen ere, beteko ditu 96 urte. Hori dela eta, bere etxean egon gara, argazkia ateratzen eta zoriontzen. Belaunak ez ei dauzka oso ondo, baina, gainerakoan, osasuntsu aurkitu dugu Juana. Urtebetetzea ospatzeko, bazkaria egingo dute Juanak eta bere familia osoak.

Zorionak, bada, Juana, eta urte askotarako, guzti-guztion partetik! /A.I.

## LABUR

### Antzuolarrak ondo Elgetako pilota txapelketan

Xabier Biteri eta Josu Agirre pilotari antzuolarrak Elgetako lau t'erdiko txapelketa jokatzen dihardute. Hain zuzen, aurreko asteburuan jokatu zituzten lehendabiziko partidua, eta biek ere irabazi egin zuten. Agirrek Iribar izan zuen aurrez aurre, eta 22-13 irabazi zion. Xabier Biterik, berriz, San Sebastianen aurka jokatu zuen txapelketako lehendabiziko partidua, eta 22-11 irabazi zuen.

### Trenaren gaineko erakusketarako materiala batzen

Antzuolako trenbidearen eta trenaren gaineko erakusketa antolatzen dihardu Udalak, maiatzerako. Orain, erakusketa horretarako materiala batzen dihardute. Horrela, herritarrei honako eskaera egin nahi diete: norbaitek argazkiak edo bestelako materialik balu, udaletxera, Jone Larrañagarengana edo Iñigo Ramirez de Okarizengana jo dezake.

## HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta · Kazetaria

### Interes komertzialak eta herriko jaiak

Patxi Mutiloa Aspe enpresako buruak garbi esan zuen Buruz buruko Pilota Txapelketa Nagusiaren aurkezpenean, kirol merituz gain, interes komertzialak direla nagusi. Dirudienez, Berraondok ez du interes komertzialik; horregatik geratu da txapelketatik kanpo, nahiz eta iaz lehen mailara igotzeko txartela lortu.

Mandazainek bidean egiten ei dute topo eta Asperi helduko zaio Antzuolara etortzeko eguna, herriko jaietan. Beharbada orduan, Antzuolako herriari pilota jaialdia saltzerakoan, izango du interes komertziala

Berraondok. Orduan, Mutiloari bere berbak ekarri behar ko zaizkio gogora; antzuolarrak interes komertzialik ez badi, jaialdia debalde emateko eskatu. Dirua eskatzen badute, berriz, ezezkoa eman. Ez da bidezkoa urtean egun bakar batean interes komertziala izatea.

Mikel Goñik zuen, euren ustez, erakarpina Buruz burukoan. Partida bat jokatu, galdu eta



**"Aritz Berraondori ukatu egin diote txapelketan berea zuen aukera"**

etxera joan da. Garesti irten zaie Vidarteri eta Mutiloari apustu hau. Labriteria ez zen jende asko joan eta Berraondok baino dirutza handiagoa irabazten du Goñik. Oinatz Bengoetxeari, Otxandorenari, sei hilabetez min hartuta izan ondoren txapelketa jokatuko duen Esaini, adibidez, lekua egin diete.

Duela hiru urteko Lau t'erdiko Txapelketan bi enpresa

nagusietako pilotaria ez zen Otaegi izan zen ezustekoa. Goñi kanporatu eta haren atzetik joan ziren bere herritarrak. Zegaman lehenik eta Astelenan ondoren, Eugiren kontra jokatu zuenean. Eibarko pilotalekua bete samartu egin zuten azpeitarrek, ezustean. Makina bat partida jokatu dira figurekin orduan baino jende gutxiagoren aurrean. Aurtengo Buruz burukoan ere gauza bera gertatuko da norbaitekin. Behetik datorrenen batek, partidak irabazi ahala, erakarriko du jendea. Berraondori ukatu egin diote berea zuen aukera hori.

## KIROLA

### PARTIDUAK

**FUTBOLA**  
Martxoak 27  
12:00: Antzuola-Union Txiki (2. erreg.)  
Martxoak 28  
12:00: Antzuola-Zestoa (Kadeteak)

**PILOTA**  
Martxoak 27 (Udaberri Saria)  
10:00: Olalde-Urrietako II (Paletaz)

### EMAITZAK

**FUTBOLA**  
Lagun Onak 9 Antzuola 0 (2. erreg.)  
Antzuola 5 Beti Ona 4 (Gazteak)

**PILOTA**  
Udaberri Saria  
Olalde-Zarautz (Kadet. eskuz) ... 22-5  
Oiangui II-Olalde (Paletaz) ... 20-35



*Juan Cruz*  
**Jaunartze argazkiak**

Betiko izango den oroigarriak merezi du lan txukuna.  
Zatoz Juan Cruzera.

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**



**Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**AITZ-GARBI**



**Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51  
ANTZUOLA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko martxoaren 26a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Udalak hamasei proiektu aurkeztu ditu Jaurlaritzaren Izartu plangintzarako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eusko Jaurlaritzak abian du Izartu programa, eta plangintza honen bidez, udalek dirulaguntzak jasotzeko proiektuak aurkezten dituzte. Elgetako Udalak hamasei proiektu aurkeztu ditu eta egindako eskaria, guztira, 4.741.000 euro izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoan gainbehera etorritako herriak edo ekipamendu faltan daudenak berpiztea da, besteak beste, Izartu programaren helburuetako bat, eta horretarako udalei ematen die protagonismoa. Hori dela eta, Elgetako Udalak hainbat proiektu aurkeztu ditu Izartu programaren bitartez dirulaguntzak jasotzeko. Martxoaren 18an ezohiko osoko bilkura egin zuten, erabakitzeke zein proiektu aurkeztu Izartu programarako.

### DIRU GEHIEN MENDI MUSEORAKO

Programa lau urteko epean garatuko da, eta horren arabera eskaerak egin ditu Udalak. Behin Jaurlaritzan aurkeztu ostean, ikusi beharko da zein proiektu onartzen dituzten eta era berean



Beste hainbat proiektuendako dirulaguntza eskatzeaz gain, udaletxea berritzeko asmoa ere azaldu dute.

Udalak hauetako zeini eman behar dion lehentasuna. Izan ere, Jaurlaritzatik jasotako diruek baldintzatuko dituzte proiektu hauek guztiak.

Diru gehien eskatzen duen proiektua mendi museoarena da: 1.800.000 euro, hain zuzen ere. Salvador kalea oinezkoendako egokitzeko 400.000 euro dira eta

udaletxea konpontzeko 350.000 euro; eta Maalako parkerako eta aisialdi gunerako 300.000na euro.

Hauetaz gain, beste proiektu batzuk ere badira, 16 guztira, eta

*Diru gehien mendi museoaren proiektua aurrera eramateko eskatuko dute: 1.800 euro*

*Guztira, 4.741.000 euro eskatuko dizkie Udalak Jaurlaritzari Izartu programaren bidez*

hauen artean daude: hondakinak desegitea, webgunea eta Wi-Fi sarea, erabilera askotariko zentroa, haur eskola, lur azpiko edukiontzia, edateko uraren hodia eta energia berriztagarriak.

Guztira 4.741.000 euroko dirulaguntza eskatu dute proiektuetarako, eta orain, ikusi egin beharko da Jaurlaritzak hauetatik zein batzuk onartzen dituen.

## ZERGAK

### Ur eta zabor zergak banatu egingo dituzte

I.A.


Orain arte, Elgetako Udalak ur eta zabor zergak ordainagiri bakarrean kobratu izan dizkie herritarrei, baina hemendik aurrera bi ordainagiri bidaliko dizkiete etxera.

Lehen, Ur Partzuergoak uraren gaineko zeregin batzuk baino ez zituen hartzen beregain, eta gainontzekoak Udalaren esku zeuden. Orain, ordea, uraren ziklo osoaz arduratzen da partzuergoa. Horrenbestez, urari prezioa hark

ipintzen dio, eta baita ordainagiriak prestatu ere. Honetaz gain, hodi berriak ipintzea edo ur zerbitzuan gertatutako matxurak konpontzea ere partzuergoaren lana da.

Aurtengo lehen hiruhilabetea amaitzean bidaliko dute uraren ordainagiria Elgetako etxetara, eta horren ondoren zaborrarena.

Hala ere, Udaletik jakinarazi digutenez, herritarrei etxera bidaliko diete aldaketa honen gaineko informazioa.



Zaborraren zergaren ordainagiria urarena baino geroago bidaliko dute.

## LABUR

### Morau eta Matxura taldeen kontzertua, bihar, gaztetxean

Gaztetxearen zortzigarren urteurreneko ekitaldi nagusiak joan zen asteburuan ospatu ziren. Antzerkia, musika, tertulia, bazkaria, bertsoariak... Denetik izan zen asteburuan Elgetan. Baina oraindik ez dira ospakizunak amaitu, eta biharko, zapatarako, Morau eta Matxura taldeen kontzertua antolatuko dute gaztetxeak. Matxura taldean Gorka Arizmendiarrak elgetarrak jotzen du. Saioa 22:30ean hasiko da, eta sarrerak 3 euro balio du.



ELKARRIZKETA

ETOR GARATE ETA ANDONI ELORTZA/PILOTARIAK

*“Txapelketa zaila izango da guretako, aurkariak maila ona dute eta”*

I.A.

**E**lgetako lau t'erdiko ETB Kantxa saria abian da. Kadeteek eta 23 urtez azpikoek jardungo dute. Tartean badira bi pilotari elgetar: Etor Garate eta Andoni Elortza. Hamabosna urte dituzte, eta gogoz hasiko dute txapelketa.

**Lehenengo aldia duzue lau t'erdiko txapelketan?**

Andoni: Nik lehenengo aldiz hartuko dut parte aurten baina Etorrek iaz ere jardun zuen.

Etor: Txapelketa Elgetan bertan da, eta gainera gure entrenatzailea ibiltzen da txapelketa antolatzen, beraz, honek bultzatu gaitu parte hartzera.

**Eta nola ikusten duzue txapelketa?**

Etor: Nolako pilotariak etorriko diren ikusita, zaila izango da, dudarik gabe.

**Ezagutzen al dituzue zuen aurkariak?**

Andoni: Beste urte batzuetan jokatu izan dutenak ezagutzen ditugu, frontoian nola jokatzeko duten behintzat ikusi dugu.

Etor: Nafarroa eta Errioxatik ere etorri izan dira, eta hor beste maila bat daukate, oso altua.

**Iazko txapeldunak ere hartuko du parte. Horrek beldurrik ematen dizue?**

Etor: Txapeldunak beste edozeinek, maila ona daukate eta. Beste txapelketa batzuetan ere hartu duzue parte, ezta?

Andoni: Gipuzkoakoa jokatu dugu eta orain Udaberriko torneoan eta Debarroko txapelketan dihardugu.

Etor: Gipuzkoako Txapelketan orain dela urte batzuk txapeldunorde izan ginen.

**Zein dira pilotari bezala zuen alderdi onenak?**

Andoni: Biok daukagu jokoa antolatatzeko gaitasuna. Beti besteek nola diharduten ikusi eta horren arabera jokatzeko dugu.

Etor: Nik, esaterako, atzean jokatzeko dut, eta aurkariak indar



*“Beste urte batzuetan jokatu duten pilotariak ezagutzen ditugu, eta maila ona dute”*

txikia daukala ikusiz gero atzean sartzen dugu; alderantziz bada, aurrean jokatzeko saiatzen gara. **Gogor entrenatzen zarete?**

Andoni: Nik teknifikazioko saioak egiten ditut bi astean behin Antzuolan, eta bestela Elgetan entrenatzen naiz.

*“Besteek nola jokatzeko duten ikusita gure jokoa antolatzeke gaitasuna daukagu”*

Etor: Nik Elgetan eta Bergaran jarduten dut pilotan. **Baduzue pilotan eredurik?**

Andoni: Aurrean Aimar Olaiola eta atzean Beloki.

Etor: Atzelari moduan niri ere Beloki gustatzen zait; aurrean, berriz, Titin.



**Istripua Lan-Hotz enpresan**

Astlehenean istripua gertatu zen Lan-Hotz enpresan. 20:30ak inguruan suhiltzaileak bertaratu ziren teilatuko txabolan ustez sua zegoelako. Iritsi zirenerako, ordea, ez zuten suaren arrastorik aurkitu. Langileek aurrez kea ikusi zuten, eta begiratzera joan zenetako batek izan zuen istripua, lurrak behe-eginda jausi baitzen. Kolpe handia hartu zuen, eta anbulantzia ere bertaratu zen, baina ez zuten eraman. /I.A.



**Bide alboko horma konponduta**

Torrera heltzen dagoen horma zatia denboraldi batez jausita egon ostean, lehenengo astean konpondu egin zuten. Elurra zela eta tolestu eta bideraino irten ziren pinuen adarrak kendu eta gero, Artapenenkoek hondeatzeko makinarekin ibili ziren horma konpontzen. Urtsua ei da zati hori, eta tarte horretan konpondu duten bigarren zatia da. Hartz berreraiki duten hormari eskailerratxo bat egin diote errepidetik gora joateko. /I.A.



**RECYDE, S.A.**

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949



Andra Mari plaza 2  
Tel. 943 76 81 97  
20690 Elgeta



**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA**

Goibekokale



## ERRETRATU ZAHARRA

ANTZUOLA

Herri Eskolako  
ume taldea,  
1986an

**H**erri Ikastetxeko neska-mutiko koadrila baten argazkia dakarkizuegu oraingo astean. Hiru urte zituzten argazkiko umeek, eskolako txikienak ziren. Gaur egun, berriz, 21 urte inguru dituzte.

Herri Ikastetxearen ikasgela batzuk maristena izandako eraikinean zeuden garai hartan, eta hantxe ateratakoa da honako argazkia. 1986ko erretratu da; urte haietan, ikasgela gehienetan atera zituzten taldeko argazkiak, eta gazte gehienek izango dituzte era honetako argazkiak, etxean gordeta.

Umeekin batera Lourdes Ortiz irakaslea ikusten dugu; ordezkapenen bat egiten ibili zen andereño hura. Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Jon Pagaldai, Jon Kortabarría, Sergio Sanchez, Mikel Fortuna, Alazne Gezalaga, Maialen Madariaga, Erik Lizarralde, Nagore Beitia, Xabier Biteri, Mikel Bargiela, David Martin eta Josu Zubikarai. Atzean, zutik, euren irakaslea dago, Lourdes Ortiz.

Behean, berriz, honako hauek ikusten ditugu, ezkerretik hasita: Iban Unanue, Asier Odriozola, Irune Manzidor, Gotzon Zabalo, Josu Agirre, Larraitz Berraondo, Ugaitz Iturbe eta Idurre Oro-bengoa.

Argazkia: Usoa Agirre



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

JOXAN  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

Silvestre Muñoz, s.l.  
pinturak610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARAPintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrialia  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...GARRAIOAK  
ANDUZU  
TRANSPORTESBERGARA  
607 349 043

## Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta  
era guztietako kargakZABALA  
JATETXEA • OSTATUALabegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

## AZPEITXI

Jatetxea



Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00

## Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialiaErrekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295



**BONOFOTOA**




MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein da ezkerreko zeharbidearen izena eta zein kaletan dago eskumako pasabidea?

**GALDEDEBALDE**

- |  |  |   |
|--|--|---|
| <p><b>1.</b><br/>Zein enpresak izango du Bergarako Udal Turismo Bulegoaren ardura?</p> <p>A/ Tours.<br/>B/ Nis.<br/>C/ Bira.</p> | <p><b>2.</b><br/>Tearto antzerki taldean Bergarako aktorea bat dabil. Zein?</p> <p>A/ Mireia Gabilondo.<br/>B/ Maria Urtzelai.<br/>C/ Itxaso Azkarate.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zenbagarren ekitaldia beteko du aurtengorlako Txirrindulari Igoerak?</p> <p>A/ 22.a.<br/>B/ 27.a.<br/>C/ 30.a.</p> |
|--|--|---|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

ITXASO GOENAGArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Itxaso! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Gripe epidemia batek / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Conejo lixiba**

Litroko botila.

**0,58€**

97 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA

**BERGARAROSPETSUAK**

**Ignacio Glez. Escala**

DONATO GALLASTEGI (Bergarako kronikak)

Bergarari ospea eman dioten musikarietako bat. Tolosan jaio eta Bergaran hil zen. Gure herriko Udal Musika Bandako zuzendaria eta Santa Marina parrokiako organo-jolea izan zen erretiratu arte. Aita Domingotarren Errege Seminarioko Eskolan musika irakastera etorri zen Bergarara. Lekeitioko Bandako zuzendari-posturako oposizioetan parte hartu ondoren, gure herriko udal-bandako zuzendari izendatu zuten. Zuzendari handia izan zen benetan, eta arrakasta nabarmenak lortu zituen Iruñeko, Bilboko eta Irungo txapelketetan, batzuetan, estatuko bandarik onenekin lehian aritu ondoren.

Primeran menperatzen zuen musikaren teknika, eta orkestretarako obrak bandetarako moldatzeko behar ziren moldaketa eta transkripzio guztiak egiten zituen. Enbor bereko ezpalak izan ziren, zinez, Ignazioaren semeak, bereziki (euskal musikarekin izan duten loturagatik) Jose Maria eta Migel Gonzalez Bastida. Beste hiru anaiak (Ignazio, Ramon eta Jesus) ere musika-lanetan aritu dira, baina Bergaratik kanpo.

*Primeran menperatzen zuen musikaren teknika, eta zuzendari handia izan zen benetan*

**BERGARA MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**OREKA**

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO  
ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antsietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel.: 676 617 055  
Ainhoa Basurko Tel.: 615 703 725  
AURRERA ERAIKINA  
Urtzaile 1 solairua, EIBAR

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**SANTOS**




Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10



# Goiena Telebista zuntz optikoan

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibaren eta Euskaltelen artean sinatu berri den hitzaremenari esker,  
**Euskalteleko bezeroa bazara, aurrerantzean, Goiena Telebista kablez ere ikus dezakezu**  
S11 katean (231.25 MHz)



**Mireia Alberdi**  
dietista eta nutrizionista

- Gorputzeko koipe portzenta jearen neurketa eta pisuaren kontrola.
- Banakako tratamendua
- Jarraipen pertsonalizatua

Kruz Gallastegi 7 Tel. 943 76 46 01